SANTURTZIKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, **"SANTURTZIKO UDAL-MUGARTEAN, CRISTOBAL MURRIETA ETORBIDEKO SANEAMENDUA PORTUKO HODI-BILTZAILEAN SARTZEKO PROIEKTUAREN"** OBRAK EGIKARITZEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL **"PROYECTO DE INCORPORACIÓN DEL SANEAMIENTO DE LA AVDA. CRISTOBAL MURRIETA AL INTERCEPTOR DEL PUERTO, T.M. SANTURTZI"**

Bilbon, 2020ko irailaren 25an

En Bilbao, a 25 de septiembre de 2020

**BILDU DIRA**

**REUNIDOS**

**AINTZANE URKIJO SAGREDO andrea, Santurtziko Udaleko alkate-udalburua, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 16eko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.**

**Dña. AINTZANE URKIJO SAGREDO, Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Santurtzi, actuando en virtud del Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de septiembre de 2020.**

**KEPA ODRIOZOLA AZULA jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2020ko uztailaren 20ko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.**

**D. KEPA ODRIOZOLA AZULA, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 21 de julio de 2020.**

**PARTE HARTZAILEAK**

**INTERVIENEN**

Parte-hartzaileek euren erakundeetako presidente eta ordezkari gisa parte hartzen dute. LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

**AZALDU DUTE:**

**EXPONEN**

**LEHENENGOA.**
Santurtizko udalerriak eskumenak ditu estolderia eta hondakin-uren tratamenduko alorretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

**PRIMERO.**
Que el Municipio de Santurtzi tiene competencia en materia de alcantarillado y tratamiento de aguas residuales, en virtud de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**BIGARRENA.**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren funtsezko misioa da ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea bere lurralde-eremua osatzen duten udalerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Horien azken aldaketa 2019ko martxoaren 13an onetsi zuen Batzar Nagusiak.

**SEGUNDO.**

Que el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia (Consorcio) tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 13 de marzo de 2019.

**HIRUGARRENA.**

Gaur egun, Partzuergoak saneamenduko lehen mailako sarearen zerbitzua ematen du; Udala, aldiz, bigarren mailako sarearen edo udal-estolderiaren arduraduna da.

**TERCERO.**

Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria, o alcantarillado municipal.

**LAUGARRENA.**

Partzuergoko Zerbitzu Teknikoek "SANTURTZIKO UDAL-MUGARTEAN, CRISTOBAL MURRIETA ETORBIDEKO SANEAMENDUA PORTUKO HODI-BILTZAILEAN SARTZEKO PROIEKTUA" idatzi dute, **BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR KOMA HOGEITA HAMAZAZPI EUROKO (252.290,37€)** kontrata bidezko egikaritze-aurrekontuarekin (BEZa kanpo) eta **SEI (6) hilabeteko** egikaritze-epearekin.

Parte-hartzaileek badute proiektu horren edukiaren berri. Horretan definitzen dira Cristobal Murrieta etorbideko zati bateko hondakin-urak biltzeko obrak, bai eta Santurtziko udalerrian dagoen saneamendu sare orokorrera garraiatu eta txertatzeko beharrezko kolektore nagusia ere.

**CUARTO.**

Que los Servicios Técnicos del Consorcio han redactado el "PROYECTO DE INCORPORACIÓN DEL SANEAMIENTO DE LA AVDA. CRISTOBAL MURRIETA AL INTERCEPTOR DEL PUERTO, T.M. SANTURTZI" con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA excluido, de **DOSCIENTOS CINCUENTA Y DOS MIL DOSCIENTOS NOVENTA EUROS CON TREINTA Y SIETE CÉNTIMOS (252.290,37€)** y un plazo de ejecución de **SEIS (6) meses**.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto en el que se definen las obras de recogida de las aguas residuales de parte de la Avenida Cristóbal Murrieta, así como el colector principal necesario para su transporte e incorporación a la red general de saneamiento existente en el municipio de Santurtzi.

**BOSGARRENA.**

Bi erakundeek "Santurtziko udal-mugartean, Cristobal Murrieta etorbideko saneamendua portuko hodi-biltzailean sartzeko proiektua"-n definitutako obrak egikaritzeko interes handia dute, udal-saneamenduaren egungo egoera

**QUINTO.**

Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "Proyecto de incorporación del Saneamiento de la Avda. Cristóbal Murrieta al Interceptor del Puerto, T.M. Santurtzi", a fin de

nabarmen hobetze aldera.

mejorar considerablemente la situación actual del saneamiento municipal.

SEIGARRENA.
Administrazio Publikoen arteko harremanetan bete beharreko lankidetza-printzipioa kontuan hartuta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan ezarritakoa dela bide,

SEXTO.
Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el artículo 3.1.k) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Parte-hartzaileek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA
Hitzarmen honen xede diren obrak **"SANTURTZIKO UDAL-MUGARTEAN, CRISTOBAL MURRIETA ETORBIDEKO SANEAMENDUA PORTUKO HODI-BILTZAILEAN SARTZEKO PROIEKTUAN"** jasotakoak dira. Proiektu horren kontrata bidezko egikaritze-aurrekontua **BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR KOMA HOGEITA HAMAZAZPI EUROKO (252.290,37€)** da, BEZa kanpo, eta **SEI (6) hilabeteko** egikaritze-epea dauka.

Proiektuaren xedea da Murrieta etorbidean (Santurtzi) sortutako isurketen zati bat jasotzea. Horiek, hainbat azterlanek erakutsi duten moduan, gaur egun ez daude sartuta Partzuergokoaren lehen mailako saneamendu-sarean, eta zingiradietan amaitzen den galeria batean husten dira. Ondorioz, zuzenean itsasora isurtzen dira inolako tratamendurik jaso gabe.

Egoera hori konpontzeko bi aukera jorratu ziren alternatiben aurretiazko azterketan.

## CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO
Las obras objeto del Convenio son las correspondientes al referido **"PROYECTO DE INCORPORACIÓN DEL SANEAMIENTO DE LA AVDA. CRISTOBAL MURRIETA AL INTERCEPTOR DEL PUERTO, T.M. SANTURTZI"** que alcanzan un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA excluido, de **DOSCIENTOS CINCUENTA Y DOS MIL DOSCIENTOS NOVENTA EUROS CON TREINTA Y SIETE CÉNTIMOS (252.290,37€)** y un plazo de ejecución de **SEIS (6) meses.**

El objeto del proyecto es la recogida de parte de los vertidos generados en la Avenida Murrieta (Santurtzi) que, según han puesto de manifiesto diversos estudios, actualmente no se encuentran incorporados a la red primaria de saneamiento del Consorcio y desaguan en una galería que finaliza en los pantalanes, vertiéndose directamente al mar sin ningún tipo de tratamiento.

Para solucionar esta situación, en el análisis previo de alternativas, se contemplaron dos

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARTZUERGOA — PRESIDENCIA — LEHENDAKARITZA
SANTURTZIKO UDALA — ALCALDÍA — ALKATETZA — AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI

posibles soluciones.

Aztertutako konponbideetako batek planteatzen zuen isuriak oraingo kotan batzea. Bada, alternatiba horrek eskatzen zuen hondakin uren ponpatze estazio bat eraikitzea *Santurtziko Parkean*, lehen mailako saneamendu sarean txertatzea ahalbidetzeko.

Una de las soluciones analizadas, contemplaba la recogida de los vertidos a su cota actual, alternativa que requería la construcción de una estación de bombeo de aguas residuales a ejecutar en el *Parque de Santurtzi*, para posibilitar su incorporación a la red primaria de saneamiento.

Aztertutako bigarren aukerari dagokionez, planteatu zen isurien kota jatorrian aldatzea, eta hainbat eraikinen beheko solairuetan dauden lokaletan biltzea (Murrieta etorbideko 7, 9 eta 11. zenbakietan eta Parke kaleko 3. zenbakian kokatuak). Ur zikinen erretenen sare baten bidez bideratuko lirateke grabitate bidezko kolektore bateraino. Kolektore hori eraikinen kanpoaldean egingo litzateke, eta horri esker, isuriak oraingo saneamendu sare orokorrera eraman ahal izango lirateke.

En la segunda alternativa estudiada, se consideraba la modificación en origen de la cota de los vertidos y su recogida en el interior de los locales situados en los bajos de varios edificios (ubicados en la Avda. Murrieta nº 7, 9 y 11 y Calle Parque nº 3), conduciéndolos a través de una red de albañales, hasta un nuevo colector en gravedad a ejecutar en el exterior de los edificios que los incorporase a la red general de saneamiento existente.

Aztertutako konponbideetako bigarrena garatu da "Santurtziko udal-mugartean, Cristobal Murrieta etorbideko saneamendua portuko hodi-biltzailean sartzeko" proiektuan. Barneko saneamendu-sare bat eraikitzeko proiektua egin da, ur zikinen erretenen sare bat gauzatuko delarik (I-01, I-02, I-03, I-04, I-05, I-06, I-07, I-08, I-09, I-10 eta I-11 inkorporazioak). Horrek isuriak bilduko ditu eta lehen mailako saneamendu-sarearen baitan dagoen portuko hodi biltzailean sartuko ditu.

En el "Proyecto de incorporación del Saneamiento de la Avda. Cristóbal Murrieta al Interceptor del Puerto, T.M. Santurtzi" se ha desarrollado la segunda de las soluciones estudiadas. Se ha proyectado la construcción de una red de saneamiento interior, mediante la ejecución de una red de albañales (Incorporaciones I-01, I-02, I-03, I-04, I-05, I-06, I-07, I-08, I-09, I-10 e I-11) que recoge los vertidos y los conduce hasta un colector en gravedad que los incorporará al Interceptor del Puerto de la Red Primaria de saneamiento.

Proiektuan definitutako konponbidea aurrez azaldutako beste aukeran aztertutakoa baino errazagoa da eraikitzeko. Izan ere, isuriak goragoko kota batean jasotzen dira, eta azalekoagoak diren obrak behar dira. Horrek gutxiago eragiten dio inguruari, ekonomikoki inbertsio txikiagoa dakar eta hondakin-urak ponpatzeko eraikuntzak ekiditen ditu (bai eta

La solución definida en el proyecto, frente a la otra alternativa estudiada según se ha descrito con anterioridad, resulta constructivamente más sencilla, al recoger los vertidos a una cota superior y requerir de obras más superficiales, genera menores afecciones en el entorno, económicamente supone una inversión menor y evita la construcción de un bombeo de aguas

horien geroko ustiapena eta mantentze lanak ere). Horrez gain, Santurtzi udalerriaren erdialdeko espazio publikoan kokatzearen balizko eragozpenak saihesten dira.

residuales y su posterior explotación y mantenimiento, así como posibles molestias por su ubicación en un espacio público en el centro del municipio de Santurtzi.

Obrak egikaritzean, PR1 eta PR7 putzuen arteko Kolektore Nagusia Santurtziko Udalak kudeatutako bigarren mailako saneamendu sarearen parte izatera pasako da. Inkorporazioak Santurtziko Udalari lagako zaizkio, eta honek isuriak jasotzen diren eraikinetako jabeen erkidegoei lagako dizkie.

Una vez ejecutadas las obras, el *Colector Principal*, comprendido entre el pozo PR1 y el PR7, pasará formar parte de la red secundaria de saneamiento gestionada por el Ayuntamiento de Santurtzi y las incorporaciones serán cedidas al Ayuntamiento de Santurtzi, quien las cederá seguidamente a las Comunidades de Propietarios de los edificios en los que se recogen los vertidos.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**

Proiektu tekniko egokia Ur Partzuergoak idatzi eta onetsi du. Proiektu hori lanak kontratatu eta egikaritzeko oinarri gisa erabiliko da.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**

El Proyecto técnico correspondiente ha sido redactado por el Consorcio de Aguas, siendo aprobado por éste mismo. Dicho proyecto servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

**HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA**

Santurtziko Udalak hitzarmen hau sinatzearekin batera Ur Partzuergoari ahalmena ematen dio bere izenean lanak egikaritzeko behar adina eskari, baimen, eskabide eta izapide egiteko erakunde egokiei.

**TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO**

El Ayuntamiento de Santurtzi faculta mediante la suscripción del presente Convenio que el Consorcio de Aguas pueda realizar en su nombre cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

Ur Partzuergoak organismoen baimenak eskuratzeko konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen xede diren lan guztiak egoki egikaritzeko beharrezkoak direnak.

El Consorcio de Aguas se compromete a la obtención de las autorizaciones de Organismos necesarias para la ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

Obrek ukitutako lursail eta ondasun eta eskubideei dagokienez, Ur Partzuergoari dagokio *Kolektore Nagusiari* dagokion lurzorua kudeatzea, eta Santurtziko Udalari dagokio *Inkorporazioak* eraikitzeko behar diren baimenak lortzea, bai ur zikinen erretenen sarea egingo den lokalen jabeenakz, bai obrek ukitutako

En lo que se refiere a los terrenos y bienes y derechos afectados por las obras, al Consorcio de Aguas le corresponde la gestión de suelo relativa al *Colector Principal* y corresponde al Ayuntamiento de Santurtzi, la obtención de las autorizaciones necesarias para la construcción de las *Incorporaciones*, tanto de los propietarios

jabeen erkidegoenak (zeintzuen hondakin-urak jasoko baitiren). Proiektuan jaso dira jabeekin baimenak kudeatzearen emaitza izan diren baldintzak.

de los locales en los que se ejecutará la red de albañales, como de las Comunidades de Propietarios afectadas por las obras y cuyas aguas residuales serán recogidas. En el proyecto se han recogido las condiciones resultantes de la gestión de las autorizaciones realizada con los propietarios.

**LAUGARRENA.- OBRAK KONTRATATZEA**

Partzuergoko presidentea izango da obren kontratazio-organoa.

Ondorioz, berak izapidetu beharko du kontratazio-prozedura osorik, bere eskumen eta araubidearen arabera.

Hori guztia deia eta, Partzuergoko presidenteari dagokio obrak adjudikatzea, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta.

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

El órgano de contratación de las obras será el Presidente del Consorcio.

En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Presidente del Consorcio la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación.

**BOSGARRENA.- OBREN ZUZENDARITZA**

Behin obra kontratatu eta beharrezko baimen guztiak eskuratu ostean, Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Consorcio.

**SEIGARRENA.- OBRAK FINANTZATZEA** "Santurtziko udal-mugartean, Cristobal Murrieta etorbideko saneamendua portuko hodi-biltzailean sartzeko proiektuan" sartutako obrak finantzatzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari dagokio.

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS** La financiación de las obras incluidas en el "Proyecto de incorporación del Saneamiento de la Avda. Cristóbal Murrieta al Interceptor del Puerto, T.M. Santurtzi" corresponderá al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

**ZAZPIGARRENA.- OBREN TITULARTASUNA, USTIAPENA ETA MANTENTZEA**

Ur Partzuergoak hartuko ditu obrak, eta Santurtziko Udaleko ordezkari bati ekitaldi formalean parte hartzeko dei formala egingo zaio.

- *Kolektore Nagusia* egintza berean pasako da udal titulartasunekoa izatera. Ondorioz, Santurtziko Udalak bere gain hartuko ditu egikaritutako saneamendu sare berriaren

**SÉPTIMA.- TITULARIDAD, EXPLOTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS OBRAS**

El Consorcio de Aguas realizará la recepción de las obras, a cuyo acto formal será convocado un representante del Ayuntamiento de Santurtzi.

- El *Colector Principal*, pasará, en el mismo acto, a ser de titularidad municipal y, en consecuencia, el Ayuntamiento de Santurtzi asumirá los derechos y obligaciones

jabetzatik eratorritako eskubide eta betebeharrak nahiz horren ustiapena eta mantentze lanak.

- Santurtziko Udalari lagako zaizkio *Inkorporazioak*, eta honek instalazio horien titulartasuna, ustiapena eta mantentze lanak lagako dizkie isuriak jasotzen diren eraikinetako jabeen erkidegoei.

derivados de la propiedad de la nueva red de saneamiento ejecutada, y la explotación y mantenimiento de la misma.

- Las *Incorporaciones* serán cedidas al Ayuntamiento de Santurtzi que después cederá la titularidad de estas instalaciones, así como su explotación y mantenimiento, a las Comunidades de Propietarios de los edificios en los que se realice la recogida de los vertidos.

**ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonek osatuko dute: udaleko bi ordezkarik eta Ur Partzuergoko beste bik. Santurtziko Udaleko kideek, hitzarmenari lotutako gaietan parte hartzeaz gain, Partzuergokoaren solaskide eta jabe gisa jardungo dute lokalen barruan inkorporazioak eraikitzeko obrak egikaritu bitartean egin beharreko kudeaketetan.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien artean sortzen diren arazo teknikoak, juridiko-administratiboak eta lankidetzakoak argitzea.

**OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del municipio y dos por parte del Consorcio de Aguas. Los integrantes del Ayuntamiento de Santurtzi, además de intervenir en las cuestiones relativas al Convenio, actuarán como interlocutores del Consorcio y propietarios en las gestiones que resulte preciso realizar durante la ejecución de las obras en la construcción de las incorporaciones en el interior de los locales.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, jurídico-administrativas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA**

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta alderdiak behartuko ditu sinatzen denetik aurrera, eta hitzarmen honetako obrak jaso eta ZAZPIGARREN klausulan definitutako lagatze-aktak formalizatu arte iraungo du.

**NOVENA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se recepcionen las obras objeto del presente Convenio y se formalicen las actas de cesión definidas en la cláusula SÉPTIMA.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUNGIPENA**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo kontratua

**DECIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula

indargabetzen denean iraungiko da.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmena zorrotz bete dadin edo indargabetu dadin eskatu ahalko du.

Hitzarmena indargabetuz gero, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

AINTZANE URKIJO SAGREDO
**Santurtziko Udalaren Alkatea-Udalburua**
Alcaldesa-Presidenta
del Ayuntamiento de Santurtzi

KEPA ODRIOZOLA AZULA
**Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea**
Presidente
del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia